


MAITTEZ MINDUTA

CRISTINA DURÁN / MIGUEL A. GINER BOU



OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUNEN MINISTÉRIOA
BERDINTASUNERAKO ESTATUKO IDAZKARITZA
GENERO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA

Argitalpen ofizialen katalogo orokorra
<http://www.060.es>

Argitaratzailea:

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioa.
Berdintasunerako Estatuko Idazkaritza.
Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.

Prado pasealekua, 18. 28014 – Madril
Helbide elektronikoa: violencia-genero@igualdad.mpsi.es
Internet: www.mpsi.es

Koordinazioa:

Pilar Gómez Muñoz.
Kide aholkularia.

Miguel Lorente Acosta.
Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaria.

Egileak:

© Gidoia: **Miguel Ángel Giner Bou.**
© Ilustrazioak: **Cristina Durán Costell.**

Diseinua eta maketazioa: LaGRUAestudio.

Komiki hau egiteko, aldez aurretik, Carmen Castroren laguntza izan dute egileek (SinGénerodeDudas) eta Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak ikuskatu du lana.

NIPO: 860-11-034-5



MAITEZ MINDUTA
OLIVIA ETA MARTINEN ISTORIA
CRISTINA DURÁN / MIGUEL A. GINER BOU

OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUNEN MINISTERIOA
BERDINTASUNERAKO ESTATUKO IDAZKARITZA
GENERO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA

MAITEZ MINDUTA

HITZAURREA

Gezurra dela pentsa genezake, asmakeria dela eta ez benetako istorioa, kontu urruna edo irreala dela, errealitateak komikian agertzen diren marrazkiekin zerikusirik ez balu bezala, pertsonaiek gure alboan oinez dabiltzan pertsonekin edo gurekin batera metro edo autobusa hartzen dutenekin zerikusirik ez balute bezala. Baina benetan diotsuet: Olivia eta Martinen istorioa benetakoa da; pertsonaiak ez dotoz beste mundu batetik, eta ez dira irudimenak asmatuak. Protagonistak edozein neska-mutiko izan daitezke, jolastokian edo gelan aurkitzen ditugunak, kalean edo merkataritza-guneetan ikusten ditugunak. Jende ezaguna, hasieran oso jatorrak diren mutilez maitemintzen diren neskak, baina ondoren haien jabe direla pentsatzen duten mutilak, neskak beraienak direla uste dutenak, beraien ondasun balira bezala... Jatorrak izateari utzi eta bortitz bihurtzen diren mutilak.

Berdintasunerako Ministerioak Espainia osoko nerabeekin egindako ikerketa batean ondorengo emaitzak jaso dira: 10 neskatik 1ek, gutxi gorabehera, tratu txarreko egoerak bizi izan ditu mutil-lagunaren eskutik, eta 10 mutiletik 1,3k aitortzen du tratu txarra eman diotela bikotekideari. Ikusten duzuen bezala, ez da hain arraroa, eta pentsatzen duzuen baina hurbilago dago. Agian arazoa puzten ari naizela pentsatuko duzue, eta jakin nahiko duzue zer egin duten mutil horiek, erasotzaile direla ondoriozta dezagun. Bada, mutilek eurek azaltzen dutenez, adibidez, beldurra sentiarazi diete, iraindu egin dituzte edo irrigarri utzi, edo ezer balio ez zutela sinestarazi diete. Nesken irudiak mugikorreko mezu (sms) bidez edo Internet bidez zabaldu dituzte, samintzeko edo umiliatzeko... Hori guztia, eta gehiago. Ikus dezakezuen bezala, ez da “umekeria”, inondik ere; aitzitik, benetako erasoak dira, eta emakumeek –baita neska gazteek ere– jasaten duten indarkeriaren parte dira.

Horregatik, oso garrantzitsua da zuek indarkeria hau ezagutzea, eta jakitea normaltasunez eta ohiko zerbait balitz bezala aurkezten dela, bikote-erlazioetan (batzuetan, behintzat) berezko zerbait balitz bezala, horrek indarkeria justifikatzea baitakar errefusatu behar. Gainera, oso zabaldua dago, ikusi ahal izan duzuen bezala: gogoan izan, ia neska eta mutiko gazteen %10ek esan dute noizbat jaso edo eragin dutela! Eta edozein tokitan gertatzen da: ez pentsa pobretasun, larrialdi, alkohol eta droga giroetan soilik gertatzen denik... Edozein mutikok eragin dezake tratu txarra, hala erabakitzen badu; bere borondatearen arabera egongo da dena.

Eta, hori hala bada, pentsatu al duzue zergatik dagoen edozein lekutan tratu txarrak eragiten dituen horrenbeste mutil? Galdera ona. Jarrera bera oso baldintza desberdinetan agertzen bada, guztietan komuna den zerbait egon behar du. Berdin du familiak diru gehiago edo gutxiago irabazten duen, kultura

gehiago ala gutxiago daukan, auzo batekoa edo bestekoa den... Izan ere, baldintza zehatz batzuen ondorio izango balitz, baldintza horiei lotuta bakarrik agertuko litzateke. Ez da horrela gertatzen, ordea. Emakumeenganako indarkeriak oztopo eta bide guztiak gainditzen ditu, egoera eta giro guztiak; edozein bikotetan gertatzen dira, erasotzaileek hala erabakitzen badute. Guztiek kultura-erreferentzia berdinak dauzkate, eta kultura esaten dudanean ez naiz ari arte, literatura, pintura, edo musika sorkuntza batean egindako kultura-adierazpen batez; kulturak gizartean gure bizikidetzat antolatzen ematen dizkigun balioez ari naiz, eta kulturak “goitik berehako gizonak” eta “benetako emakumeak” izateko ematen dizkigun erreferentzien zati diren funtzioei eta paperei buruz. Neskei eta mutilei gauza desberdinak esaten dizkigute balio horiek; hala, posible egiten dute mutil batzuek “beraien neska” kontrolatu egin behar dutela pentsatzea, bikote-erlazioko konpromisoaren parte bezala, horrela mutilak gaizki geldi ez daitezen eta besteek ez dezaten pentsa kikil batzuk direla edo neskak beste lagun batzuekin adarrak ipintzen dizkiela. Eta neskei adierazten diete “beraien mutila” serio jartzen denean edo beste lagun batzuekin ez hitz egiteko esaten dienean, edo arropaz aldatzeko agintzen dienean... hori guztia maitasunarengatik egiten dutela, jeloskor daudelako eta jeloskortasuna maitasuna delako.

Maitasunarengatik egiten dute, bai, hala da. Baina beren buruarekiko maitasunarengatik, norberekiarengatik, eta neskaren jabe direla pentsatzearengatik. Mugak eta irizpideak beraiek jar ditzaketela uste dute, eta, gizonak eraikitako kultura batean bikote-harremanak izan behar duen horretara egokitzen da erlazioa. Irizpideak sortzen da hortaz, eta horren atzean desberdintasunaren adierazpen gogorrenak ezkutatu dira; besteak beste, emakumeenganako indarkeria eta bereizketa, ondorengo esaldi “goxoeak” aditzera ematen dutena, esaterako: “Hauek ez dira neska batentzako orduak” edo “Hori ez da neska batentzako lekua”.




Maitasuna dagoen lekuan ezin da indarkeria egon, eta neska baten ekimena kikiltzen, mugatzen, kontrolatzen duen edozer indarkeria da, mutiko baten aginduen mende jartzera behartzen duelako neska, eta mutilak bere iritziz egokia ez den edozein jarrera konpontzeko indarkeria erabiltzea errazten duelako, edo neskak bere jarrerarekin mutilaren posizioari eraso egin diola ulertzera daramalako mutila.

Ez da gehiago maite jarrera hauek jasatearengatik, eta inor ez da gizonagoa horrelakoak egitearengatik, gizakia Giza Eskubideen errespetuan eraikitzen baita. Komikiko istorioak deskribatzen duen egoeraren batean bazaudete edo horrelako zerbait zuen inguruan gertatzen ari dela ohartzen bazarete, ez gelditu zalantzan, zalantzak beti harrapatzen baitu indarkeria jasaten duena eta indartu indarkeria eragiten duena, egoera hori luzatu baino ez baitu egiten. Galdetu, hitz egin, deitu 016 telefono zenbakira, laguntza eskatu eta eman, Oliviaren taldeak egiten duen bezala. Gizarte hobea eraiki behar dugu, eta horrek indarkeriarik ezin egon daitekeela esan nahi du. Martxan jarri behar dugu, hitzordu honetan inork ezin baitu huts egin.

Miguel Lorente Acosta


Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaria.








**K
R
A
K!**






**K
R
A
K!**




















ZER GERTATZEN DA? EZ DUGU GEHIAGO JOLASTU BEHAR?

OLI ARRAIOAI DENA NAHASTEN DUZU...

ESAN NIEN JADA LAGUNEI ETORRIKO ZINELA...

GOGO HANDIA DAUKAT ZU ETORTZEKO...



BENO, ALDEZ AURRETIK GALDETU ZENEZAKE.

TIRA, OLI GERO BLOK JOANGO GARA ZINERA...


BAINA GURI GUSTATZEN ZAIGUN FILM BAT IKUSTERRA, ETA EZ ZURE LAGUNEI GUSTATZEN ZAIEN MELENGA HORIETAKO BAT...



ETA BESTE GAUZA BAT... ZERGATIK EZ DITUZU BOTOIAK LOTZEN? OSO BILUZIK ZOAZ...

BROMA DA, ALA?

TIRA, EZ ZAIZU EZER KOSTATZEN...



HARA.

ZER?

OLIVIA ZEN EZETZ ASMATU?

EZ DATORRELA LARUNBATEAN.

BENO, NORMALA DA... A FASEAN DAUDE...

ENE, PEDRITO, ZEIN MEMELOA ZAREN, NEN.

HORIXE!



HAU, AMA, HAU GUSTATZEN ZAIT.

E... HAU?



BAI, ZER? EZ ZAZU GUSTATZEN?

BAI... GUSTATZEN ZAIT BAINA ARRA-ROA EGITEN ZAIT ZURI GUSTATZEA.



ZERGATIK DIOZU HORI? OSO ONDO GELDITZEN ZAIT.

BETI HAIN ARROPA MOTZEKIN IBILTZEN ZARENEZ, ARRAROA EGITEN ZAIT HORRE-LAKO GONA LUZEAREKIN IKUSTEA...

GOOOOONA OOO... LI... VIAA.



BENO, AMA, HELDUA NAIZ NAHI DUDAN BEZALA JANZTEKO, EZTA?

EZ NAZAZU UMETZAT HARTU!



EZ, LAZTANA, EZ DA HORI

ETA EZ EZAZU TONU ULERKORREGI HORI ERABILI NIREKIN...

... EZIN DUT JASAN.



MARTIN DA... KANPOAN DAGO NIRE ZAIN.

BANOA.

OLIVIAAA... HASERRR...



ETA GONA?

NIK ZER DAKIT! UTZI HOR NONBAIT!





JENDE ASKO ARRISKU EGOERAN DAGO ETA EZ DA HORRETAZ OHARTZEN...

ETA GOGOAN IZAN: SALATZEKO ESKUBIDEA DAUKAZU, BABESTEKO AGINDUA ESKA DEZAKEZU, EKINTZA JUDIZIALEI BURUZKO INFORMAZIOA JASO DEZAKEZU...

ETA 016 (*) TELEFONO ZENBAKIA ESKURATU DAUKAZU. HEMEN DUZUE INFORMAZIO TRIPTIKOA...

016(*): Genero indarkeriaren inguruko informaziorako eta aholku juridikorako telefonoa.



OSO ONDO, EMAN ESKERRAK BERDINTASUN MINISTERIOKO INDARKERIA UNITATEKO ORDEZKARIARI BERE LAGUNTZAGATIK.

OLIVIA, MOMENTU BATEAN GERA ZAITEZKE?



ZERA... PRESA DAUKAT...

UNE BAT BAKARRIK IZANGO DA.



MILA ESKER, PLAZERRA IZAN DA...



GUSTATU ZAIZU MINTZALDIA?

OSO HEZIGARRIA IZAN DA...

MARTINEKIN IRTETEN ARI ZARELA IKUSI DUT, FUTBOL TALDEKOA...

BAI... ETA?



EZ DAKIT BADAQUIZUN, URTE BATZUETAN MARTINEN ENTRENATZAILEA IZAN NINTZEN. ZER MODUZ BEREKIN?

HORI EZ ZAIZU AXOLA...

TIRA OLIVIA, EZ EGIN GOGOR PLANTARIK, EZ ZARA HORRELA KOA ETA...



UTZ NAZAZU BAKEAN...

BENO, BENO, TRIPTIKOA ERAMAN EZAZU, ETA BOTA IEZAIOTZU BEGIRADA BAT, MESEDEZ...

ZUK ESAN BEZALA... ETA ERRETOLIKA AMAITU BADUZU, BANOA...



BLAM!



GUSTATZEN ZAIZU?

BENETAN POLITA DA, CAROL...



CAROL? ASPALDIAN EZ DIDAZU HORRELA DEITU... UMEAK GINENETIK...

GOGORATZEN DUZU TXAKURKUME HURA?

LARACROF!

NOLA AHAZTU?



UF... HURA BELDURRA PASATU GENUENA.

BAI, GOGORATZEN ZARA GELDI GERATU ZINELA?

BAI...



ZERA... E... PIXKA BAT HORRELA IKUSTEN ZAITUT, OLIVIA...

GEROZ ETA GEHIAGO URRUNTZEN ARI ZARA GUGANDIK, ZURE LAGUNEN-GANDIK...



***** CAROLINA!, ZU ERE BAI?

ZUGATIK KEZKATUTA NAGO...

BA UTZI KEZKATZEARI, HELDUA NAIZ JADA...

BAINA OLIVIA...



BEGIRA, GUREA OSO BEREZIA DA...

ZUEK EZIN DUZUE ULERTU GUK SENTITZEN DUGUNA.

BATEZ ERE ZUK... EZ DUZU SEKULA HORRELAKO BIKOTE BAT AURKITUKO ETA...

ZER ESAN NAHI DUZU?


AZALDU EGIN BEHAR AL DIZUT?



PUF...

BLAM!





ASTEBURUA, TABERNA INGURUAN...

KAIXO.

KAIXO, CAROLINA,
ZER MODUZ?

AIZU, HURA EZ
AL DA MARTIN?

...ETA TALDE OSOA... EZ AL ZEUDEN
KANPOAN JOLASTEN, ASTEBURU OSORAKO?

BAI, HORI ESAN ZIDAN OLI-
VIAK... DEITU EGINO DIOT...





OLIVIA? ZERBAIT HARTZE-
RA ETORRI NAHI AL DUZU?
HEMEN GAUDE DENAK...

A, ONDO DA...



ETA, ADI, HEMEN DATOR HOBERENA...







HILABETEA DARAMATZAT ITXAROTEN ETA EZIN DUT BETI HORRELA JARRAITU...

GUREA BEREZIA DA, EZ DUZU INOIZ HALAKORIK AURKITUKO...



AURREKOAN NESKA BATZUEKIN TONTEATZEN IKUSI ZINTUDAN...

BA... EZER EZ... NORMALA DA MUTILAK TONTEATZEN IBILTzea...



BAI, BAINA NIRI, ORDEA, EZIN ZAIT INOR GERTURATU...



... ETA NORBAIT HURBILTZEN BAZAIT, GERO ORDUAK EGITEN DITUZU HITZ EGIN GABE, HASERRE...

BERRIRO EGIN DUZU! BERRIRO ERE GAIA ALDATU DUZU!



BARKATU, BAINA DENBORA NERAMAN GAUZA HAU EK ESAN NAHIAN...

GAUZA HAU EK? GEHIAGO ORAINDIK?

BAI, BAINA EZ HASERRETU...



ZERA, BETI IRTETEN GARA ZURE LAGUNEKIN... NIREAK FALTAN BOTATZEN DITUT.

UF, BAI... BAINA ZURE LAGUNAK HAIN ASTUNAK DIRA...

...ETA IZUGARRI ASPERGARRIAK... ZUK ERE ESAN DUZU NOIZBAIT...



HORI DA ESAN NAHI ZENIDAN GUZTIA?

EH... ZURE LAGUN RICARDO...

ZER GERTATZEN ZAIO?



EZ DAKIT... EZ ZAIT GUSTATZEN...

BERAREKIN ZAUDENEAN BESTE JARRERA BAT IZATEN DUZU.


EZ DELA HARREMAN ONA? NIRE ZAHARRA DIRUDIZU! EZ DA HARREMAN ONA...



BA BEGIRA, RICARDO ANAIATZAT DAUKAT...

ARAZOAK DAUZKAN FAMILIA BATETIK DATOR ETA, NEURRI BATEAN, HAREN ARDURADUN SENTITZEN NAIZ...

HAIN SOLIDARIOA IZANIK, ULERTU BEHARRO ZENUKE, EZTA?





BAINA, ZER **** KONTATU DIEZU NIRE GURASOEI?

LASAI, OLIVIA...



LASAITZEKO? NIRE GURASOEK UDA OSORAKO IRLANDARA JOATEA NAHI DUTE!

ORAIN, MARTINEKIN OPORRAK ANTOLATUTA NEUZKANEAN...

ONDO DA, BARKATU, EZ NUEN ZURE GURASOENGANA JO BEHAR...



BAINA EZ ZARA KONTURATZEN, EZ ZARA ZU, MENFERATUTA ZAUELA EMATEN DU...



HORI NIRE GAUZA DA!! ETA ZUK EZ DAUKAZU ZERTAN HOR SARTU!!

ESAN NIZUN, NIRE LAGUNA ZARA ETA ZUTAZ KEZKATZEN NAIZ...

BA HEMENDIK AUERRERA LAGUN BERRI BAT BILATZEAZ KEZKATU BEHARRO DUZU, ETA BERAK JASAN DITZALA ZURE TONTAKERIAK...



HORI EZ ZAIT BATERE GUSTATU...

BADAKIZU ZER GERTATZEN DEN? INBIDIA DIGUZU, ETA EZIN DUZU JASAN.



HAIN ONDO KONPONTZEN BAZARA BERAREKIN, ZERGATIK EZ DIOZU LARUNBAT GAUVAZ GALDETZEN?



LARUNBATA? KANPORA JOAN ZIREN JOLASTERA...

ZIUR AL ZAUDE? ZERGATIK EZ DIOZU GALDETZEN?



EZ ZARA BERTINA, OLIVIA. POZTASUNA GALDU DUZU...

ZERA... JABEARI BELDURREZ BEGIRATZEN ZION TXAKURKUME HURA BEZALAKOA ZARA...



HORRELAKOA ZARA MARTINEKIN ZAUDENEAN...

ETA HORI, DUDARIK GABE, EZ DA MALTASUNA...



ZOAZ POPATIK HARTZERA!





BEGIRA, ZURE TONTAKERIEZ NAZKATZEN ARI NAIZ...

ESAIDAZU ORAINTXE BERTAN NOR JOAN ZAIZUN TXUTXU-MUTXUAREKIN!




ZER EGIN BEHAR DUZU? KONTUAK GARBITU NIREKIN ERE?



BA EZ DA IZANGO MEREZI EZ DUZULAKO...



ESAN, NOR IZAN DA? NOR KONTATU DIZU?



RAKEL?

MIRVA?

CAROLINA?



NOSKI, CAROLINA...



KUKKUXERA
*** HORI!



BA ORAIN JAKINGO DU NOR NAIZEN!



CA... CAROL...



"JABEARI BELDURREZ BEGIRATZEN ZION
TXAKURKUME HURA BEZALAKOA ZARA"



CAROL...



MARTIN, EZ!









BANOA NI...



KAIXO, CAROL.

EZ IEZADAZU ATEA ITXI, MESEDEZ.



GAUZA BAT EKARRI DIZUT...



ZER DA? EZ DAUKAT GOGORIK OPARI GEHIAGORAKO...

FIDATU NITAZ... IREKI ETA JAKINGO DUZU...



OLIVIA, NO... NOLA?



BENO...E... PIXKA BAT BUSTI NINTZEN...

BAINA DENAK DAUDELA USTE DUT, ALA?



EMIDAZU BESARKADA BATI!



ETA EZ ZAITEZ MARTI-NENGATIK KEZKATU...

UTZI EGIN DUT, BE-TI--KO!

LEZIOA IKASI DUT! ZURI ESKER...

EMIDAZU BESTE BESARKADA BATI!

BAINA ZEIN MELENGA ZAREN!

GAUZA BAT BURURATU ZAIT...

KOMIKI BAT EGIN BEHAR DUT ISTORIO HONEKIN... IZENBURUA...

"MAITEZ MINDUTA" IZANGO DA.

Berdintasuna eta Genero Indarkeria Adoleszentzian
lantzen dituen Ikerketa:

www.mspsi.es



Cristina Durán (1970) eta Miguel Ángel Giner

Bou (1969) Arte Ederretan lizentziatuak dira, Marrazketa espezializazioan, Valentziako San Carlos-eko Arte Ederren Fakultatean, UPV. 1993an LaGRUAestudio sortu zuten, eta orduetik han egiten dute lan, komikiak eta ilustrazioak (bai editorialak bai publizitatekoak) eginez. 2009an, Ediciones Sins Entido-k beren nobela grafikoa argitaratu zuen, UNA POSIBILIDAD ENTRE MIL. 2010eko martxoan frantsesez ere argitaratu zuen Dargaud editorialak, UNE CHANCE SUR UN MILLION izenburupean. Finalista izan zen Kultura Ministerioak 2010ean eman zuen Komikiaren Sari Nazionalen, eta 2011n 2. saria jaso zuen Frantzian, 1er Trophée “les Bds qui font la différence”-an.

www.lagruaestudio.com

www.unaposibilidadentremil.com

MAITEZ MINDUTA

OLIVIA ETA MARTINEN ISTORIA

“Gezurra dela pentsa genezake, asmakeria dela eta ez benetako istorioa, kontu urruna edo irreala dela, errealitateak komikian agertzen diren marrazkiekin zerikusirik ez balu bezala, pertsonaiek gure alboan oinez dabiltzan pertsonekin edo gurekin batera metro edo autobusa hartzen dutenekin zerikusirik ez balute bezala. Baina benetan diotsuet: Olivia eta Martinen istorioa benetakoa da; pertsonaiak ez datoz beste mundu batetik, eta ez dira irudimenak asmatuak. Protagonistak edozein neska-mutiko izan daitezke, jolastokian edo gelan aurkitzen ditugunak, kalean edo merkataritza-guneetan ikusten ditugunak. Jende ezaguna, hasieran oso jatorrak diren mutilez maitemintzen diren neskak, baina ondoren haien jabe direla pentsatzen duten mutilak, neskak beraienak direla uste dutenak, beraien ondusun balira bezala... Jatorrak izateari utzi eta bortitz bihurtzen diren mutilak...”

Miguel Lorente Acostaren Hitzaurretik
Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaria

